

ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIKO
ARTEZKARITZA BATZORDEKO AKTA
ACTA DEL CONSEJO RECTOR DEL ORGANISMO AUTÓNOMO
ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA

Ohiko ezbilera	Reunión extraordinaria	
Eguna / Día:	2017/03/22	
Deialdia / Convocatoria:	Lehena / Primera	
Hasiera ordua / Hora inicio:	08:00	
Amaiera ordua / Hora finalización:	08:30	

Bertaratutakoak / Asistentes

Presidente delegatua / Presidenta delegada:	Sonia Rodriguez Rodriguez	EAJ-PNV
Batzordekideak / Vocales:	Joseba Ibarretxe Fdez. de Larrinoa	EH-BILDU
	Maite Barahona Diaz	PSE-EE (PSOE)
	Iñaki Unibaso Rollosa	HABE
	Itziar Arteagoitia Alonso	Zuzendari akademikoa
Bertaratu ez direnak / Ausentes:	Joseba Mendez Gómez	AG
	César Casado Lataburu	Ikasleen ordezk.
Idazkari delegatua / Secretaria delegada:	Begoña Ealo Agirre	

1.- AURREKO BILERAREN AKTA ONESTEA HORRELA BALEGOKIO (2017-01-18)

Artezkaritza Batzordeak bertaratutakoen erabateko adostasunez, aldeko 14 botorekin (EAJ-PNVren 7, EH-BILDUren 5 eta PSE-EE (PSOE)ren 2), aurreko bileraren akta onartzea erabaki du, Presidente delegatuak eta idazkari delegatuak sinatzen dutelarik.

2.- PRESIDENTE DELEGATUAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

1.- APROBACIÓN SI PROCEDE DEL ACTA DE LA REUNIÓN ANTERIOR (18-01-2017).

El Consejo Rector por unanimidad de los asistentes, con 14 votos a favor (7 de EAJ-PNV, 5 de EH-BILDU y 2 del PSE-EE (PSOE)), acuerda aprobar el acta de la reunión anterior procediendo a su firma por parte de la Presidenta delegada y la secretaria delegada.

2.- DAR CUENTA DE DIVERSAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA DELEGADA.

Artezkari Batzordea Presidente delegatuak hartutako 11ra bitarteko zenbakidun ebazpenen jakinaren gainean geratu da.

3.- 2017 .URTEAN EZARTZEKO 2016KO AURREKONTUAREN LUZAMENDUAREN BERRI EMATEA.

Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren Artezkari Batzordeak 2017ko ekitaldian aplikatzeko 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren luzapenari buruzko Presidente delegatuaren ebazpenaren berri izan du. Ebazpenak honakoa dio:

PRESIDENTE DELEGATUAREN EBAZPENA:

Txostena: 2016ko aurrekontuaren luzapena, 2017ko ekitaldian aplikatzeko

KONTUAN HARTUZKOAK ETA OINARRIAK

LEHENENGOA: 2017an, ez dago onartutako aurrekonturik ekitaldi honetarako.

BIGARRENA: Jarraian zerrendatutako partidetan doikuntzak egitea beharrezkoa dela uste da, zenbateko hauengatik:

DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN DOIKUNTZA:

Zuhurtasun-printzipioari jarraituta eta aurreikusitako diru-sarreraren errealitatearen irudi leiala izateko HABEren diru-laguntza eta tasen bidezko diru-sarrerak doitu ditugu. Izan ere, HABEren transferentzia-partidan 2016-2017 ikasturterako aurreikusitako kopurua jaso da, kopuru hori 140.136,25 eurokoa da. Tasen bidezko sarrerei dagokienez, kopurua gutxitu egin da, 2016an bildutako diruaren kopurua kontuan hartuta, zenbatekoa 40.000 eurokoa delarik.

2016. urtean bezala, hasierako defizita estali ahal izateko, Arrigorriagako Udalaren diru-

El Consejo Rector se da por enterado de las Resoluciones dictadas por la Presidenta delegada desde la número 1 hasta la número 11.

3.- DAR CUENTA DE LA PRÓRROGA DEL PRESUPUESTO DE 2016 PARA SU APLICACIÓN EN EL EJERCICIO 2017.

El Consejo Rector de Arrigorriagako Udal Euskaltegia acuerda quedar enterado de la Resolución de la Presidenta delegada referente a la prórroga del presupuesto de 2016 para su aplicación en el ejercicio 2017 y cuyo tenor literal es el siguiente:

RESOLUCIÓN DE PRESIDENTA DELEGADA:

Informe: Prórroga del presupuesto del año 2016 para su aplicación al año 2017.

CONSIDERANDOS Y FUNDAMENTOS

PRIMERO: Estando en el año 2017, no se dispone de presupuesto aprobado para este ejercicio.

SEGUNDO: Se considera necesario hacer los ajustes en las partidas y por los importes que a continuación se relacionan:

AJUSTE DEL PRESUPUESTO DE INGRESOS:

Conforme al principio de prudencia y para mantener una imagen fiel de la realidad de los ingresos previstos, resulta preciso ajustar a la baja las subvenciones de HABE y los ingresos por tasas, así en la partida de transferencias de HABE se ha recogido la cantidad estimada para el curso 2016-2017 y que asciende a 140.136,25 €. En cuanto a los ingresos por tasas se ha disminuido la cantidad del ejercicio anterior teniendo en cuenta la recaudación del 2016, siendo la cantidad prevista de 40.000 €

Al igual que en el ejercicio 2016, se ha ajustado la subvención del Ayuntamiento de

laguntza doitu dugu, oraingo zenbatekoa 226.055,06 eurokoa delarik.

GASTUEN AURREKONTUAREN DOIKUNTZA:

Elkarkidetza partida doitu dugu, 2016.urteko betebeharren arabera, zenbatekoa 4.000 euroko delarik.

Luzatu daitezkeen gastuen partidak 478.172,70 €koak. Luzatutako diru-sarreraren aurrekontua 478.172,70 eurokoa da, ondorioz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuaren abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 14.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, aurrekontuak hasierako defizitarik ez dauka.

HIRUGARRENA: Egindako doikuntzak Presidente delegatuak onartu beharko ditu, lehen aipatutako 9. artikuluekin bat etorritz:

9. Korporazioko Presidenteak, Kontuhartzaitzak txostena aurkeztu ostean, doikuntzak egingo ditu honakoetan, horretarako finantzaketa nahikoa badago: luzatu gabeko diru-sarreraren ondoriozko aurrekontu luzatuetan (aurreko 6. atalean xedatua), konpromiso kredituak barne, baita berezko izaeragatik zuzkidurak handitzea eskatzen duten bestelako gastu motetan ere.

LAUGARRENA: Ondorio gisa, honako aurrekontu LUZATUA 2016 geratuko litzateke, ataletan banatuta eta xehatuta:

Arrigorriaga para cubrir el déficit inicial, siendo el importe estimado de 226.055,06 €

AJUSTES DEL PRESUPUESTO DE GASTOS:

Se ajusta la partida de Elkarkidetza atendiendo a las obligaciones contraídas en 2016, siendo el importe 4.000€

Las partidas prorrogables de gastos ascienden a 478.172,70 € El presupuesto de ingresos prorrogado asciende a 478.172,70 €, por consiguiente y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.6 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, el presupuesto no presenta déficit inicial.

TERCERO: Los ajustes efectuados, deberán ser aprobados por la Presidenta delegada, conforme al punto 9 del artículo antes citado:

9. Los ajustes que haya que realizar en el presupuesto prorrogado como consecuencia de ingresos no prorrogados, de mayores cargas financieras, incremento retributivo previsto en el apartado 6 anterior, los créditos de compromiso incluidos, así como otro tipo de gastos que por su naturaleza económica exijan un incremento en sus dotaciones, se realizarán por el Presidente de la Corporación, previo informe de la Intervención, siempre que exista financiación suficiente para ello.

CUARTO: Como conclusión, resultaría el siguiente presupuesto PRORROGADO 2016 resumido por capítulos y desglosado:

<u>KAP. CAP.</u>	<u>SARRERAK / INGRESOS</u>	<u>LUZATUA/ PRORROGADO 2016</u>
1	Zuzeneko zergak/Impuestos Directos	
2	Zeharkako zergak/Impuestos Indirectos	
3	Tasak eta bestelako sarrerak/Tasas y otros ingresos	40.020,00
4	Transferentzi arruntak/Transferencias corrientes	426.132,70
5	Ondare sarrerak/Ingresos patrimoniales	10,00
A	SARRERA ARRUNTAK	

	INGRESOS CORRIENTES	466.162,70
6	Inbertsio errealak besterenganatetik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk/ Enajenación de inversiones reales y otros derivados de actuaciones urbanísticas	
7	Kapital transferentziak/Transferencias de capital	
8	Finantza aktiboak/Activos financieros	12.000,00
9	Finantza pasiboak/Pasivos financieros	10,00
B	KAPITAL SARRERAK INGRESOS DE CAPITAL	12.010,00
C=A+B	GUZTIRA/TOTAL	478.172,70

<u>KAP. CAP.</u>	<u>GASTUAK / GASTOS</u>	<u>LUZATUA/ PRORROGADO 2016</u>
1	Pertsonal gastuak/Gastos de Personal	430.352,70
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak/Gastos en bienes corrientes y servicios	25.500,00
3	Finantza gastuak/Gastos financieros	
4	Transferentzia arruntak/Transferencias corrientes	9.010,00
D	GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES	464.862,70
6	Inbertsio errealak/Inversiones reales	1.300,00
7	Kapital transferentziak/Transferencias de capital	
8	Finantza aktiboak/Activos financieros	12.000,00
9	Finantza pasiboak/Pasivos financieros	10,00
E	KAPITAL GASTUAK GASTOS DE CAPITAL	13.310,00
F=D+E	GUZTIRA/ TOTAL	478.172,70

BOSGARRENA: Luzatutako aurrekontuak 10/2003ko Foru Arauaren 14.6. artikulua betetzen badu ere, 2014.urteari dagokion likidazioa burutu arte itxaron beharko genuke, behin betiko egonkortasun adierazleak betetzen diren baieztatzeko asmoz.

Hau guztia kontuan hartuta, hauxe **ERABAKI DUT:**

2017. urterako aurrekontuaren luzapena eta luzatutako aurrekontuari egindako doikuntzak onartzea.

QUINTO: El presupuesto prorrogado cumple el artículo 14.6 de la Norma Foral 10/2003. No obstante, se queda a la espera de la liquidación del año 2016 a efectos de verificar el cumplimiento de todos los indicadores de estabilidad de forma definitiva.

Por todo lo cual **HE RESUELTO:**

Aprobar la prórroga del presupuesto para el año 2017, así como los ajustes efectuados a dicho presupuesto prorrogado.

4.- KREDITU SOBERAKINEN ERANSKETA DELA ETA, 2017. URTEKO AURREKONTUARI DAGOKION 1. ALDAKETA AGIRIA. 1/17 TXOSTENA.

Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren Artezkaritza Batzordeak kreditu soberakinen eransketa dela eta, 2017. urteko aurrekontuari dagokion 1. aldaketari buruzko Presidente delegatuaren ebazpenaren berri izan du. Ebazpenak honakoa dio:

PRESIDENTE DELEGATUAREN EBAZPENA

Espedientea ikusita eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21. artikuluan, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuaren 24. artikuluan, 1986ko azaroaren 28ko Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren 41. artikuluan eta bat datozen gainerako xedapenetan ezarritako eskumenak direla bide.

Ikusirik, erakunde autonomoaren gastu aurrekontuaren 1. kapituluko partida bat handitu beharra dagoela, eta horretarako aurreko ekitaldian geratutako diruzaintzako gerakin likidoa aplikatuz.

Izan ere, 2016ko abenduaren 30ean pertsonal laboralari produktibitate osagarria ordaindu ahal izateko 2.460,57 €ko gastuaren xedapena egin zen, baina data zela eta, ezin izan zen gastua horren betebeharra aitortu. Horregatik, orain indarrean dagoen aurrekontuan behar diren kreditu soberakinak eransteke proposamena egiten da.

Bizkaiko lurralde historikoko toki erakunde aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 foru-arauaren 32. artikulua ezartzen duenaren arabera, eta aipatutako arauak eta artikulua emandako ahalmena erabiliz.

Presidentzia honek Udal Euskaltegia erakunde

4.- 1º EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2017 POR INCORPORACIÓN DE REMANENTES DE CRÉDITO. INFORME 1/17.

El Consejo Rector de Arrigorriagako Udal Euskaltegia acuerda quedar enterado de la Resolución de la Presidenta delegada para aprobar el 1º expediente de modificación del presupuesto del ejercicio 2017 por incorporación de remanentes de crédito, y cuyo tenor literal es el siguiente:

RESOLUCIÓN DE PRESIDENTA DELEGADA

Visto el expediente de su razón, y en virtud de las atribuciones establecidas en el artículo 21 de la Ley 7/85, de dos de abril de la L.R.B.R.L., 24 del R.D.L. 781/86 de 18 de abril T.R.R.L. y 41 del R.O.F. de 28 de noviembre de 1986 y demás disposiciones concordantes.

Apreciada la necesidad de incrementar una partida correspondiente al capítulo 1 del Presupuesto de Gastos del organismo autónomo, aplicando a tal fin el remanente de tesorería líquido procedente del ejercicio anterior.

En efecto, con fecha 30 de diciembre de 2016 se dispuso un gasto de 2.460,57 € para el abono al personal laboral de un complemento de productividad del que no se pudo contraer la obligación por problemas de fecha. Por ello, ahora se propone la incorporación de los remanentes de crédito necesarios en el presupuesto vigente.

Tal y como establece el artículo 32 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, presupuestaria de las entidades locales del territorio histórico de Bizkaia, y en uso de la competencia que me otorga la misma norma y artículo.

Esta Presidencia resuelve la aprobación del

autonomoaren 2017ko aurrekontua aldatzeko espediente onestea ebatzi du, kreditu soberakinak eransketagatik (1/17 espediente). Horrenbestez, honako aldaketa hauek egin dira gastu eta diru-sarreraren egoeretan:

expediente de modificación del Presupuesto del Organismo Autónomo Euskaltegi Municipal para 2017, por incorporación de remanente de créditos (Expediente 1/17), introduciéndose en los estados de gastos e ingresos las siguientes modificaciones:

KREDITU SOBERAKINAK / REMANENTE DE CRÉDITOS

GASTUEN EGOERA / ESTADO DE GASTOS

<u>PARTIDA</u>	<u>IZENA / DENOMINACIÓN</u>	<u>GEHIKUNTZA INCREMENTO</u>
3350.130.04	Produktibitate osagarrirako ordainsariak Retribuciones complemento de productividad	1.658,44
	KREDITU SOBERAKINAK GUZTIRA.....	
	TOTAL REMANENTE DE CRÉDITOS	1.658,44

Aurreko zenbateko hori horrela finantzatu da:

- Gastu arruntetarako diruzaintzako soberakina aplikatuz 1.658,44.-

El anterior importe queda financiado de la siguiente forma:

- Por aplicación del Remanente de Tesorería para gastos generales 1.658,44.-

5.- 2016. URTEARI DAGOKION AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren Artekari Batzordeak 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren onarpenari dagokion Presidente delegatuaren ebazpenaren berri izan du. Ebazpenak honakoa dio:

Kontu-hartzaile Delegatuak emandako Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren 2016ko Aurrekontuaren Likidazioa ikusita eta berau osatzen duten agiriak aztertuta, eta horiek ontzat emanez, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua ematen dizkidan eskumenak betez.

5.- LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2016.

El Consejo Rector de Arrigorriagako Udal Euskaltegia acuerda quedar enterado de la Resolución de la Presidenta delegada referente a la aprobación de la liquidación del Presupuesto de 2016 y cuyo tenor literal es el siguiente:

Vista la Liquidación del Presupuesto del Arrigorriagako Udal Euskaltegia correspondiente al ejercicio de 2016 formulada por la Interventora Delegada, así como los documentos que integran la misma, y encontrándola conforme, en el ejercicio de las competencias que me atribuye el art. 49.3. de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

HONAKOA EBATZI DUT:**RESUELVO:**

Lehenengoa.- Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren 2016eko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea. Modu honetan dago laburbilduta:

Primero.- Aprobar la Liquidación del Presupuesto del Arrigorriagako Udal Euskaltegia correspondiente al ejercicio de 2016 y que presenta el siguiente resumen:

AURREKONTUAREN EMAITZA / RESULTADO PRESUPUESTARIO		
Indarrean dagoen Aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza: Resultado de las operaciones presupuestarias del presupuesto vigente.		-75.092,77
• Onartutako eskubideak/Derechos reconocidos:	335.999,47	
• Onartutako betebeharrak/Obligaciones reconocidas:	411.092,24	
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuengatik eragiketen emaitza: Resultado por operaciones de presupuestos liquidados de ejercicios anteriores		0
• Itxitako ekitaldietatik ordaintzeke dauden betebeharren bajak/ Bajas de obligaciones pendientes de pago de ejercicios cerrados:	0	
• Itxitako ekitaldietatik kobratzeke dauden eskubideen bajak/ Bajas derechos pendientes de cobro de ejercicios cerrados:	0	
AURREKONTUAREN EMAITZA (doikuntzen aurretik): RESULTADO PRESUPUESTARIO (antes de ajustes):		-75.092,77
Aurrekontuaren Emaitzen doikuntzak: Ajustes al resultado presupuestario:		
• + Diruzaintzako soberakinekin finantzaturako obligazioak / Obligaciones financiadas con remanente de tesorería:	0	
• – Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantziario-desbideraketa positiboak / Desviaciones positivas de financiación imputables al ejercicio:	0	
• + Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantziario-desbideraketa negatiboak / Desviaciones negativas de financiación imputables al ejercicio:	0	
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA RESULTADO PRESUPUESTARIO AJUSTADO		-75.092,77

DIRUZAINZAKO SOBERAKINA / REMANENTE DE TESORERÍA		
DIRUZAINZAKO FONDO LIKIDOAK: FONDOS LÍQUIDOS DE TESORERÍA.		17.603,17 €
KOB RATZEKE DAUDEN SALDOAK: SALDOS PENDIENTES DE COBRO:		11.510,76 €
• Diru-sarreraren Aurrekontuko zordunak: indarrean dagoen ekitaldia / Deudores presupuesto de ingresos: ejercicio corriente:	11.510,76 €	
• Diru-sarreraren Aurrekontuko zordunak: itxitako ekitaldiak / Deudores presupuesto de ingresos: ejercicios cerrados:	0	

<ul style="list-style-type: none"> • Aurrekontukoak ez diren zordunak / Deudores no presupuestarios: • – Aplikatzeke dauden kobrantzak / Cobros pendientes de aplicación: 	0 0	
ORDAINTZEKE DAUDEN SALDOAK: SALDOS PENDIENTES DE PAGO:		24.366,33 €
<ul style="list-style-type: none"> • Gastuen Aurrekontuko hartzekodunak: indarrean dagoen ekitaldia / Acreedores presupuesto de gastos: ejercicio corriente: • Gastuen Aurrekontuko hartzekodunak: itxitako ekitaldiak / Acreedores presupuesto de gastos: ejercicios cerrados: • Diru-sarreraren Aurrekontuko hartzekodunak / Acreedores presupuesto de ingresos: • Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak / Acreedores no presupuestarios: • – Aplikatzeke dauden ordainketak / Pagos pendientes de aplicación: 	7.106,73 € 0 0 17.259,60 € 0	
DIRUZAINZAKO SOBERAKIN GORDINA: REMANENTE DE TESORERÍA BRUTO:		4.747,60 €
KOBRATZEKO ZALANTZAZKOAK DIREN SALDOAK: SALDOS DE DUDOSO COBRO:		0 €
DIRUZAINZAKO SOBERAKIN LIKIDOA REMANENTE DE TESORERÍA LIQUIDO.		4.747,60 €
DIRUZAINZAKO SOBERAKINAK, ERAGINDAKO FINANTZIAZIOA DUTEN GASTUETARAKO (Pertsonalari kendutako aparteko ordainsaria) REMANENTE DE TESORERIA PARA GASTOS CON FINANCIACIÓN AFECTADA (Paga extra suprimidad personal)		0 €
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO REMANENTE DE TESORERIA PARA GASTOS GENERALES		4.747,60 €

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea Artzkaritza Batzordearen hurrengo bileran.

Segundo.- Dar cuenta de la presente resolución en la próxima reunión del Consejo Rector.

Hirugarrena.- Adostutakoa Arrigorriagako Udalari jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

Tercero.- Trasladar lo anteriormente acordado al Ayuntamiento de Arrigorriaga para los efectos oportunos.

6.- 2017. URTEARI DAGOKION LANPOSTU ZERRENDA ALDATZEKO PROPOSAMENAREN ONARPENA HORRELA BALEGOKIO.

6.- APROBACIÓN SI PROCEDE DE LA PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO PARA 2017.

Lanpostuen zerrendaren aldaketa dela eta, Sonia Rodriguezek langileen ordezkariarekin egindako bileraren berri eman du. Ordezkar horren proposamena zen, alde batetik hutsik dagoen irakaslearen lanpostua ez amortizatzea eta, bestetik, Udalean euskara teknikari baten

En relación a la modificación de la RPT, Sonia Rodriguez da cuenta de la reunión llevada a cabo con la representación sindical la cual proponía la no amortización del puesto de profesorado vacante, así como la creación de una plaza de un puesto de técnico-a de euskara

plaza sortzea, Euskaltegiaren langile-soberakinak xurgatzen hastearren.

Soniak azalpenekin jarraitu du eta udal gobernu taldearen ustearren berri eman du. Hutsik dagoen irakaslearen plaza azkeneko urteetan bete barik egon denez, eta gaur egungo irakasleen beharrak kontuan hartua, udal gobernu taldeak uste du Udalak beste helburu batzuetarako erabili ahal izango dituela baliabide ekonomiko horiek.

Joseba Ibarretxek galdetu du, ea amortizatu nahi den plaza hori udalean hizkuntza-normalizazio lanetan ari den pertsonaren plaza den.

Soniak ezetz erantzun dio, amortizatu nahi den plaza, hain zuzen ere, zenbait urtetan hutsik egon den plaza dela eta plaza horretan ez da inoiz bitartekorik izan.

Jarraian, lanpostu zerrendaren aldaketarako proposamen osoa agertzen da:

**PRESIDENTE DELEGATUAREN
PROPOSAMENA, ARRIGORRIAGAKO
UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE
AUTONOMOAREN LANPOSTUEN
ZERRENDA 2017. URTERAKO
ALDATZEARI BURUZKOA**

Arrigorriagako Udalaren eta Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren azken lanpostuen zerrenda Osoko Bilkuraren 2016ko ekainaren 30eko erabakiaren bidez onetsi zen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 164. zenbakian, 2016ko abuztuaren 29koan, astelehena, osorik argitaratu zen. Langileen zerrenda horretan langile funtzionarioei eta lan-kontratudun langileei dagozkien lanpostuak jaso ziren.

Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren lan-kontratudun langileei dagokienez, zerrendan daude euskarako irakaslea izateko bost lanpostu (bat hutsik), administrari laguntzaile lanpostu bat eta

en el Ayuntamiento para ir absorbiendo el excedente de personal del Euskaltegi.

Sonia continúa explicando que desde el equipo de gobierno, sin embargo, se ha considerado que, como la plaza vacante de profesorado del euskaltegi lleva durante los últimos años sin ser ocupada y considerando la necesidad actual de profesorado, se trata de unos recursos económicos que podrían ser utilizados por el Ayuntamiento para otros fines.

Joseba Ibarretxe pregunta si la plaza que se quiere amortizar es la correspondiente a la persona que está en el Ayuntamiento realizando tareas de normalización lingüística.

Sonia le contesta que no, que la plaza que se quiere amortizar es precisamente la que se encuentra vacante desde hacia varios años y que no está ocupada por ninguna persona interina.

A continuación se recoge la propuesta íntegra para la modificación de la relación de puestos del euskaltegi:

**PROPUESTA DE LA PRESIDENTA
DELEGADA DE MODIFICACIÓN DE LA
RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO
DEL ORGANISMO AUTÓNOMO
ARRIGORRIAGAKO UDAL
EUSKALTEGIA PARA EL AÑO 2017.**

La última relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Arrigorriaga y de su Organismo Autónomo Euskaltegi Municipal fue aprobada mediante acuerdo plenario de 30 de junio de 2016 y publicada íntegramente en el BOB número 164 del lunes 29 de agosto de 2016, dicha relación de puestos contemplaba los puestos de trabajo correspondientes a personal funcionario y personal laboral.

En lo referente al personal laboral del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia esta relación se compone de cinco puestos de profesor-a de euskara (uno vacante), un puesto de auxiliar administrativo-a y un

garbiketako langile izateko lanpostu bat.

Lanpostu guztiak, garbiketako langilearena izan ezik, HABEk finantzatzen ditu, betiere, udal-titulartasuneko euskaltegi publikoei diru-laguntzak emateko baldintzak betetzen badira, urtero HABEren zuzendari nagusiak ematen dituen ebazpenetan jaso direnak. 2016. urtean, adibidez, HABEren diru-laguntza I. Kapituluako pertsonalaren gastuaren %35,16 izan zen, beste zatiaren finantzaketa Udalaren esku geratzen delarik..

Irakasleen lanpostuak hertsiki lotuta daude euskaltegian ematen diren eskola-orduen kopuruarekin. Hori horrela, orain arte gertatutakoa aintzat hartzen badugu, esan dezakegu azken ikasturteetan eskola-orduak gero eta gehiago murrizten joan direla, 2003-2004 ikasturtean gertatu zen bezala. Orduan, HABEk egindako proposamena ikusita, udal-euskaltegi-tako irakasleek beren udalerrietako euskara-planen ebaluazio-, jarraipen- eta koordinazio-jardueretan parte hartzea sustatzeari buruzkoa, erabaki zen plantillako irakasle bat udaleko Euskara Zerbitzuko zereginak egiten hastea. Gaur egun, eta 2008ko urritik, irakasle batek zeregin horiek egiten jarraitzen du udaleko Euskara Sailean.

2008. urtean, dagoeneko, taldeak eratzeko joerak behera egin zuela ikusi zen, eta, hortaz, eskola-orduak ere murriztu ziren. Hori dela eta, hutsik zegoen irakaslearen lanpostuetako bat amortizatzea erabaki zen, irakasleen kopurua benetako lan-bolumenaren arabera egokitze aldera.

Indarrean dagoen lanpostuen zerrendan ikus daiteke irakasle lanpostu bat hutsik eta bete barik dagoela. Gainera, gaur egun, Udaleko euskara zerbitzuan normalizazio funtzioak betetzen ari den irakaslearen lanpostua bitarteko dagoen irakasleak ez dauka bere lanaldi lektibo osoa beteta, ikasturte honetan izandako eskariaren beherakada dela eta. Beraz, eskariak beheranzko joerarekin jarraituko duela aurreikusi denez, beharrezkotzat jotzen da zerrendako irakasleen

puesto de personal de limpieza.

Todos los puestos, excepto el del personal de limpieza, son financiados en parte por HABE, siempre que se cumplan las condiciones para la concesión de subvenciones a los euskaltegis públicos de titularidad municipal recogidas anualmente en las distintas resoluciones del Director General de HABE. En concreto, en el año 2016 la subvención de HABE supuso una financiación de un 35,16% del gasto del capítulo I de Personal, siendo la parte restante de financiación a cargo del Ayuntamiento.

Los puestos de profesores están estrechamente relacionados con el número de horas lectivas que se imparten en el Euskaltegi. Así pues, haciendo un poco de historia podemos decir que el número de horas lectivas ha ido disminuyendo de forma progresiva en los últimos cursos, al igual que ocurrió en el curso 2003-2004. Entonces, y ante la propuesta de HABE para fomentar la participación de los profesores de los Euskaltegis Municipales en actividades de evaluación, seguimiento y coordinación de los planes de euskara en sus municipios, se decidió que un profesor-a de plantilla pase a realizar estas tareas en el Servicio municipal de Euskara. A día de hoy, y desde octubre de 2008 una profesora continúa realizando estas tareas en el departamento municipal de euskara.

Ya en el año 2008 y vista la tendencia a la baja en la formación de grupos y por tanto en las horas lectivas a impartir se decidió amortizar uno de los puestos de profesorado vacante, con el objetivo de ajustar el número de profesoras al volumen real de trabajo.

En la relación de puestos vigente se puede apreciar que una plaza de profesor-a se encuentra en situación vacante y sin cubrir pues no existe esa necesidad. Además, a día de hoy, la persona que está cubriendo interinamente la plaza de la profesora que está en las tareas de normalización del uso del euskara en el Ayuntamiento, tampoco tiene su jornada lectiva completa debido a la bajada en la demanda para este curso. Por todo ello, y previendo que continúe esa tendencia a la baja de la demanda

kopurua berriro egokitzea. Hori dela eta, gaur egungo gobernu-taldeak egokitzen hartzen du lanpostuen zerrenda berriz ere aldatzea 2008. urtean egin zen era berean, hau da, lanpostuen zerrendan 03 kodearekin agertzen den eta hutsik dagoen irakasle lanpostua amortizatzea proposatzen da.

Artezkari-tza Batzordeak aldeko 9 botoekin (EAJ-PNVren 7 eta PSE-EE (PSOE)ren 2) eta 5 abstentzioekin (EH-BILDUren 5) honakoa erabaki du:

Lehenengoa: Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren lanpostuen zerrendan aldaketa zehatza egiteko proposamena onestea jarraian zehaztu den lanpostuaren amortizazioari dagokionez.

se ve la necesidad de volver a ajustar el número de profesores-as a la misma, por lo que el equipo actual de gobierno considera oportuno llevar a cabo una nueva modificación de la relación de puestos de trabajo en el mismo sentido que en el año 2008, esto es, se propone la amortización de la plaza de profesor-a vacante que aparece en la Relación de puestos con el código número 03.

El Consejo Rector con 9 votos a favor (7 de EAJ-PNV y 2 del PSE-EE (PSOE)), y 5 abstenciones (5 de EH-BILDU), acuerda:

Primero: Aprobar la propuesta de modificación puntual de la relación de puestos de trabajo del Organismo Autónomo Euskaltegi Municipal en lo referente a la amortización del puesto de trabajo que a continuación se detalla:

ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2017KO LANPOSTU ZERRENDA
RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO 2017 DEL ORGANISMO AUTONOMO EUSKALTEGI MUNICIPAL DE ARRIGORRIAGA

KOD. COD.	IZENA DENOMINACION	ESKALA ESCALA	AZPIES. SUBES.	TITULAZIOA TITULACIÓN	EGOERA SITUACIÓN	ZE F.P.	TALDEA GRUPO	KH C.D.	LIBO CEPT 2017	H.E. PERFIL	DERR. DATA FEC. PRECEP.
03	Irakasle titularra Profesor-a titular	Admin. berezia Especial	Teknikaria Técnica	Diplomaduna edo graduoko Unibertsitatea titulua Diplomado-a o Título universitario de grado	Hutsik Vacante	C	A2	17	20.109,84	4	TP

Bigarrena: Ondorioz, gainerako lanpostuen kodeak zenbakitzea hurrenez hurren. Hona hemen zerrenda berria:

Segundo: Numerar en consecuencia los códigos de los demás puestos de trabajo correlativamente. A continuación se recoge la nueva relación de puestos modificada:

2017. URTEKO LANPOSTUEN ZERRENDA

KOD. COD.	IZENA DENOMINACION	ESKALA ESCALA	AZPIES. SUBES.	TITULAZIOA TITULACIÓN	EGOERA SITUACIÓN	ZE F.P.	TALDEA GRUPO	KH C.D.	LIBO CEPT 2017	H.E. PERFIL	DERR. DATA FEC. PRECEP.
01	Irakasle titularra Profesor-a titular	Admin. berezia Especial	Teknikaria Técnica	Diplomaduna edo graduoko Unibertsitatea titulua Diplomado-a o Título universitario de grado	Beterik Cubierta	C	A2	17	20.109,84	4	TP
02	Irakasle titularra Profesor-a titular	Admin. berezia Especial	Teknikaria Técnica	Diplomaduna edo graduoko Unibertsitatea titulua Diplomado-a o Título universitario de grado	Beterik Cubierta	C	A2	17	20.109,84	4	TP
03	Irakasle titularra Profesor-a titular	Admin. berezia Especial	Teknikaria Técnica	Diplomaduna edo graduoko Unibertsitatea titulua Diplomado-a o Título universitario de grado	Beterik Cubierta	C	A2	17	20.109,84	4	TP

04	Irakasle titularra Profesor-a titular	Admin. berezia Especial	Teknikaria Técnica	Diplomaduna edo graduako Unibertsitatea titulua Diplomado-a o Título universitario de grado	Beterik Cubierta	C	A2	17	20.109,84	4	TP
05	Administrari lag. Aux.Administrativo	Admin. orokorra General	Laguntz. Auxiliar	Eskola-graduata, LHI, DBH Graduado Escolar, FPI, ESO	Beterik Cubierta	C	C2	15	22.090,36	3	291200
06	Garbiket.langilea Operario-a limpieza	Admin. berezia Especial	Zerb.berez Serv.espec.	Eskola-ziurtagiria, titulurik gabeko profesionalak Certificado escolaridad, Agrupaciones profesionales sin titulación.	Hutsik Vacante	C	E	8	6.303,75	1	ED NT

- (1) **06 plazak jardunaldiaren %42,4ko arduraldia dauka.** El puesto 07 tiene una dedicación del 42,4% de jornada
- (2) **Irakaskuntzako zuzendaritza-lanek 1.679,25 euroko osagarria dute urtean. Erantzukizun administratiboko lanen kasuan, osagarria 3.357,89 eurokoa da urtean.**
El desempeño de las funciones de dirección académica conlleva la percepción de un complemento de 1.679.25 €año. En el caso de las funciones de responsabilidad administrativa el complemento asciende a 3.357,89 € año.

Hirugarrena: Lanpostu zerrrenda osoa argitaratzea kode berriekin.

Tercero: Publicar la relación de puestos completa con la nueva codificación numérica.

Laugarrena: Erabaki honen berri ematea Arrigorriagako Udalari, onets dezan.

Cuarto: Trasladar el presente acuerdo al Ayuntamiento de Arrigorriaga para su posterior aprobación.

7.- ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIAREN PLANTILLA ALDATZEKO PROPOSAMENAREN ONARPENA HORRELA BALEGOKIO.

7.- APROBACIÓN SI PROCEDE DE LA PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA PLANTILLA DE ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA.

Plantilla aldatzeko proposamena honako hau da:

A continuación se recoge la propuesta íntegra para la modificación de la plantilla:

ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN PLANTILLA 2017. URTERAKO ALDATZEKO PROPOSAMENA

PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA PLANTILLA DEL ORGANISMO AUTÓNOMO ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA PARA EL AÑO 2017.

Arrigorriagako Udaleko Osoko Bilkurak, 2016ko apirilaren 6ko ezohiko osoko bilkuran, 2016ko ekitaldirako aurrekontu orokorra onetsi zuen. Horren barruan, ekitaldi horretarako udalaren eta Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren plantilla organikoa jaso zen. Plantilla organikoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 87. zenbakian, 2016ko maiatzaren 9koan, argitaratu zen.

El pleno del Ayuntamiento de Arrigorriaga en sesión plenaria extraordinaria de 6 de abril de 2016 aprobó el Presupuesto general para el ejercicio 2016 comprensivo de la plantilla orgánica del Ayuntamiento y de su organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia para dicho ejercicio, publicándose la misma en el Boletín Oficial de Bizkaia núm. 87 de 9 de mayo de 2016.

Aipatutako plantilla organikoa ikusi da, eta xede horretarako, plantilla organiko hori aldatu nahi da honako alderdi hauetan:

Vista la referida plantilla orgánica, a tal efecto se pretende modificar la citada plantilla orgánica en el siguiente aspecto:

Honako lanpostu hau amortizatzea:

Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoko lan-kontratadun langileen plantillan hutsik dagoen euskarako irakasle baten lanpostua, Administrazio Bereziko Eskalako Azpieskala Teknikoko erdi-mailako teknikariak multzokoa. A2 taldea.

Hortaz, Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren plantilla organikoa honela geratuko litzateke:

Amortización de la siguiente plaza:

Una plaza vacante de profesor-a de euskara de la plantilla del personal laboral del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia perteneciente a la Escala de Administración Especial, Subescala técnica, técnicos-as medios-as. Grupo A2.

Por tanto, la plantilla orgánica del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia quedaría de la siguiente forma:

ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2017KO PLANTILLA ORGANIKOA

PLANTILLA ORGÁNICA DEL ORGANISMO AUTÓNOMO ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA EJERCICIO 2017

I. LAN-KONTRATADUN LANGILEAK / I. PLANTILLA DE PERSONAL LABORAL

I. Administrazio orokorreko eskala / I. Escala de Administración General

AZPIESKALAK SUBESCALAS	TALDEA GRUPO	ZENBAKIA NÚMERO	OHARRAK OBSERVACIONES
C) Laguntzaileen azpieskala / Subescala auxiliares			
Administrari laguntzailea Auxiliar Administrativo/a	C2	1	

II. Administrazio bereziko eskala / II. Escala de Administración Especial

AZPIESKALAK SUBESCALAS	TALDEA GRUPO	ZENBAKIA NÚMERO	OHARRAK OBSERVACIONES
A) Azpieskala teknikoa: Erdi mailako teknikariak / Subescala técnica: Técnico-as medios-as			
Euskara irakasleak Profesores/as de euskara	A2	4	
B) Zerbitzu bereziko azpieskala: ofizioetako langileak / Servicios especiales: personal de oficios			
Garbiketarako langilea Operario/a de la limpieza	E	1	Jardunaren %42,4 42.4% de jornada Hutsik / vacante

Artezkari-tza Batzordeak aldeko 9 botoekin (EAJ-PNVren 7 eta PSE-EE (PSOE)ren 2) eta 5 abstentzioekin (EH-BILDUren 5) honakoa erabaki du:

Lehenengoa: Hasi- ra batean onestea Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren plantilla organikoa aldaketz-eko proposamena, alderdi honetan:

Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde

El Consejo Rector con 9 votos a favor (7 de EAJ-PNV y 2 del PSE-EE (PSOE)), y 5 abstenciones (5 de EH-BILDU), acuerda:

Primero: Aprobar inicialmente la propuesta de modificación de la plantilla orgánica del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia en el siguiente aspecto:

La amortización de una plaza vacante de

autonomoko lan-kontratadun langileen plantillan hutsik dagoen euskarako irakasle baten lanpostua amortizatzea, Administrazio Bereziko Eskalako Azpieskala Teknikoko erdi-mailako teknikariak multzokoa. A2 taldea.

Bigarrena: Erabaki honen berri ematea Arrigorriagako Udalari, onets dezan.

8.- 2017. URTEARI DAGOKION AURREKONTUAREN EGITASMOA ETA EUSKALTEGIAREN PLANTILLA

Sonia Rodriguezek, Erakunde Autonomoko Presidente delegatuak, 2017ko ekitaldirako aurkeztu den aurrekontu-proiektuaren berri eman du.

Kontuan izanik Aurrekontuaren tramitazioan indarrean dagoen legediak eskatutako baldintzak bete direla, Artezkari Batzordeak Aurrekontua osatzen duten dokumentuak aztertu ditu.

Ikusita kontu-hartzaile delegatuak gai horri buruz burututako txostena. Bertan honakoa azaltzen da:

- 1) Aurrekontua prestatzeko aintzat hartu da Arrigorriaga Udalaren diru-laguntza ekarpena, erakunde autonomo honen defizitari aurre egiteko neurrian; gordailua eraginkorra izan dadin aipatutako udalaren 2017. urteko aurrekontuan diru-laguntza gordailu gisa jarri beharko da.
- 2) Transferentzien aurreikuspenei dagokienez, nabarmendu behar dugu HABEren diru-laguntza 140.136,25 eurokoa izango dela.
- 3) Gastuen egoeran, langileen ordainsarietarako aurrekontuan jasotako zenbatekoak %1eko igoerarekin areagotu dira 2016ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta. Udalean euskararen erabilera normalizatzeko lanak egiten ari den pertsonaren ordezkari irakasleari dagozkion ordainsariak ere aurrekontuan jaso

profesor-a de euskara de la plantilla del personal laboral del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia perteneciente a la Escala de Administración Especial, Subescala técnica, técnicos-as medios-as. Grupo A2.

Segundo: trasladar el presente acuerdo al Ayuntamiento de Arrigorriaga para su aprobación.

8.- PROYECTO DE PRESUPUESTO PARA EL EJERCICIO 2017 Y PLANTILLA DEL EUSKALTEGI.

Sonia Rodriguez, Presidenta delegada del Organismo Autónomo, da cuenta del proyecto de presupuesto que se presenta para el ejercicio 2017.

Resultando que en la tramitación del Presupuesto se han seguido los requisitos exigidos por la legislación vigente, el Consejo Rector pasa a examinar los documentos que lo componen.

Visto el informe emitido al respecto por la Interventora delegada en el que expone:

- 1) El presupuesto ha sido confeccionado presupuestándose la subvención-aportación del Ayuntamiento de Arrigorriaga en cuantía suficiente para paliar el déficit de este Organismo Autónomo; consignación que solamente tendrá efectividad si en el presupuesto para el 2017 del citado Ayuntamiento se consigna la correspondiente subvención.
- 2) En cuanto a la previsión de transferencias podemos destacar la de HABE que ascienden a 140.136,25 €.
- 3) Que en el estado de gastos, los importes presupuestados para retribuciones del personal han experimentado un incremento de un 1% respecto a los vigentes a 31 de diciembre de 2016. Se han presupuestado las retribuciones correspondientes a la profesora sustituta de quien está realizando funciones de Normalización del

dira. Aldi baterako irakasleak kontratatzeak eragindako gastuak ez dira aurrez ikusi aurrekontuan; baina behar izanez gero, aurrekontuan aldaketak aplikatuko dira, udalaren ekarpen handiagoen bitartez finantzatutakoak.

Nabarmena da mantendu dela ikasleei zuzendutako diru-laguntzak jasotzen dituen partidan jarritako zenbatekoa. Hori udal euskaltegi zerbitzu publikoa erabiltzeagatik indarrean dagoen ordenantzaren ondorioa da. Aipatutako partidan jasotako zenbatekoa 9.000 eurokoa da.

4) Tasa bidezko sarreren zenbatespenari dagokionez, aurreko urteko kopurua mantendu da, zenbatekoa 45.000 eurokoa delarik.

HABEren diru-laguntzaren zenbatekoa txikitu egin da aurreko ekitaldiarekin erkatuta, Euskaltegiaren jardun lektiboa jaitsi delako.

Bada, aurrekontua nibelatu ondoren, eta ez dagoenez hasierako defizita, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 14.6 artikulua eskatzen duen gisan, arau horretako 6.1 artikulua agintzen duen dokumentazioa aztertuta ondorioztatu da aipatutako aurrekontuak lege osaera zuzena duela. Horrez gain, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan ezarritako egonkortasun irizpideak errespetatzen ditu.

Horrenbestez, jakinarazi behar da aurrekontua osatzerakoan lege agindu aplikagarriak aintzat hartu direla, eta kalkuluen arabera dagokion ekitaldian likidatu beharreko eskubide eta betebeharrei aurre egiteko aurreikuspen arrazionalak jaso dituela, aurrekontua osatzen duten kontzeptu bakoitzari dagokionez. Halaber, nabarmendu behar da aurrekontuan jasotako eskubideak likidatzen ez badira, defizita izango dela, seguruenik betebeharrak ez direlako aldatuko.

Artezkaritza Batzordeak aldeko 9 botorekin (EAJ-PNVren 7 eta PSE-EE (PSOE)ren 2), eta 5 abstentzioekin (EH-BILDUren 5) honako hau erabaki du:

Uso del euskara en el Ayuntamiento. Respecto a los gastos derivados de la contratación de profesores temporales no se ha presupuestado cantidad alguna, si bien, si fuera necesario, se recurriría a modificaciones presupuestarias financiadas por mayor aportación del Ayuntamiento.

Señalar el mantenimiento de la consignación de la partida de subvenciones al alumnado como consecuencia de la ordenanza de ayudas en vigor con el objeto de fomentar el uso del servicio público euskaltegi municipal. La cantidad consignada asciende a 9.000 €

4) En cuanto a la estimación de ingresos por tasas, se ha mantenido la cantidad del año anterior, cuyo importe asciende a 45.000 €

El importe de la subvención de HABE ha disminuído respecto al ejercicio anterior debido al descenso de la actividad lectiva del Euskaltegi.

Establecida pues la nivelación del presupuesto, no existiendo por tanto déficit inicial tal y como exige el artículo 14.6 de la Norma Foral 10/2003 presupuestaria de las Entidades Locales y, examinada la documentación que preceptúa el artículo 6.1. de la misma Norma se deduce la correcta formación legal del referido presupuesto. Así mismo, respeta los criterios de estabilidad establecidos en la Ley Orgánica 2/2012 de estabilidad presupuestaria.

En conclusión, se informa que el Presupuesto ha sido confeccionado observando las prescripciones legales aplicables y contiene las previsiones racionales para atender las obligaciones y los derechos que se calculan liquidar durante el correspondiente ejercicio, por cada uno de los conceptos que lo integran. Así mismo, resaltar que en caso de no liquidar los derechos recogidos en el presupuesto se produciría déficit, ya que las obligaciones se mantendrían probablemente invariables.

El Consejo Rector con 9 votos a favor (7 de EAJ-PNV y 2 del PSE-EE (PSOE)), y 5 abstenciones (5 de EH-BILDU) acuerda:

1) Udal Euskaltea Erakunde Autonomoaren 2017ko ekitaldirako Aurrekontuaren proposamena onartzea kapituluaren arabera laburpen honekin:

1) Aprobar la propuesta del Presupuesto para el ejercicio 2017 del Organismo Autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltea con el siguiente resumen por capítulos:

GASTUEN LABURPENA / RESUMEN GASTOS		
<u>KAPITULUAK</u>	<u>IZENA</u> <u>DENOMINACION</u>	<u>ZENBATEKOA</u> <u>IMPORTE</u>
	<u>A) OHIKO ERAGIKETA / OPERACIONES CORRIENTES</u>	
1	Pertsonal gastuak Gastos de personal	377.019,56
2	Ohiko ondasunetarako eta zerbitzuetarako gastuak Gastos de bienes corrientes y servicios	25.500,00
4	Ohiko transferentzia Transferencias corrientes	9.010,00
	<u>B) KAPITAL ERAGIKETAK / OPERACIONES DE CAPITAL</u>	
6	Inbertsio errealak Inversiones reales	1.300,00
8	Finantza aktiboak Activos financieros	12.000,00
9	Finantza pasiboak Pasivos financieros	
	GASTUEN AURREKONTU GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO GASTOS	424.829,56

SARREREN LABURPENA / RESUMEN INGRESOS		
<u>KAPITULUAK</u>	<u>IZENA</u> <u>DENOMINACION</u>	<u>ZENBATEKOA</u> <u>IMPORTE</u>
	<u>A) OHIKO ERAGIKETAK / OPERACIONES CORRIENTES</u>	
3	Tasak eta bestelako sarrerak Tasas y otros ingresos	45.020,00
4	Ohiko transferentziak Transferencias corrientes	367.799,56
5	Ondare sarrerak Ingresos patrimoniales	10,00
	<u>B) KAPITAL ERAGIKETAK / OPERACIONES DE CAPITAL</u>	
8	Finantza aktiboak Activos financieros	12.000,00
9	Finantza pasiboak Pasivos financieros	
	SARREREN AURREKONTU GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO INGRESOS	424.829,56

2) Goi mailako organoa den aldetik, aurrekontuaren proiektu hau Arrigorriagako Udaleko Udaltzara eramatea, bertan onartua izan dadin eta, ondoren, tramitazioa egin dadin.

2) Elevar al Pleno del Ayuntamiento de Arrigorriaga, como órgano superior el presente proyecto de presupuesto para su aprobación y subsiguiente tramitación.

3) Udal Euskaltegiak 2017ko ekitaldian izango duen langileen zerrenda onartzea. Hain zuzen ere, honako taula honetan jasotakoa da:

3) Aprobar la plantilla del Euskaltegi Municipal para el ejercicio 2017 y que es la recogida en la siguiente tabla:

2017KO PLANTILLA ORGANIKOA

PLANTILLA ORGÁNICA DEL EJERCICIO 2017

I. LAN-KONTRATUDUN LANGILEAK / I. PLANTILLA DE PERSONAL LABORAL

I. Administrazio orokorreko eskala / I. Escala de Administración General

AZPIESKALAK SUBESCALAS	TALDEA GRUPO	ZENBAKIA NÚMERO	OHARRAK OBSERVACIONES
a) Laguntzaileen azpieskala / Subescala auxiliares			
Administrari laguntzailea Auxiliar Administrativo/a	C2	1	

II. Administrazio bereziko eskala / II. Escala de Administración Especial

AZPIESKALAK SUBESCALAS	TALDEA GRUPO	ZENBAKIA NÚMERO	OHARRAK OBSERVACIONES
b) Azpieskala teknikoa: Erdi mailako teknikariak / Subescala técnica: Técnico-as medios-as			
Euskara irakasleak Profesores/as de euskara	A2	4	
c) Zerbitzu bereziko azpieskala: ofizioetako langileak / Servicios especiales: personal de oficios			
Garbiketarako langilea Operario/a de la limpieza	E	1	Jardunaren %42,4 42.4% de jornada Hutsik / vacante

9.- 2017-03-08KO EBAZPENAREN BIDEZ ONARTUTAKO FAKTUREN ZERRENDAREN BERRI EMATEA.

Sonia Rodriguezek, Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoko Presidente delegatuak, 2017-03-08ko ebazpenaren bidez onartutako fakturen zerrendaren berri eman du, zenbatekoa 928,75 eurokoa da.

Horrela, bada, bilera amaitutzat jo da eta guztiaren akta jaso da.

9.- DAR CUENTA DE LA RELACIÓN DE FACTURAS APROBADAS POR RESOLUCIÓN DE FECHA 08-03-2017.

Sonia Rodríguez, Presidenta delegada del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia, da cuenta de la relación de facturas aprobadas por Resolución de fecha 08-03-2017 y cuyo importe asciende a 928,75 €

Se da por finalizada la reunión, extendiéndose la presente acta.

Arrigorriagan, 2017ko martxoaren 22an

PRESIDENTE DELEGATUA

IDAZKARI DELEGATUA